



ARESOKO USO POSTUEN ENKANTEA AMAITU DA

Posturik merkeena 90 eurokoa izan da eta garestiena 1.713koa; azaroaren amaiera bitarte ehizatu ahalko da »6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-09-29**

VIII. URTEA 2.086. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Baliarraingo Ibiur bailara urtegia egin aurretik. HITZA

IBIUR BAILARAREN HUTSUNEA ARTEAREN LAGUNTZAZ BETE DUTE

BALIARRAIN Demetrio Garmendiak eta Aitziber Arteagak baserria eta etxebizitza zituzten bailaran; euren bizipenak kontatu dituzte 4-5



Renedo (PSE), Bildarratz (EAJ), Yañez (PP) eta Azkue (EAJ). A. IMAZ

Udalak Voith Gorostidin 105 parking emango ditu kontzesioan

TOLOSA Plaza bakoitzak 5.000 euro inguru balio ditu; zozketa azaroaren amaieran egingo da 3



«Eskualdeko gudarien senide eta lagunak» elkartu zituen Tolosaldeko Ezker Abertzaleak. A. IMAZ

«GUDARIEN OINORDEKOEN» LEKUKOTZA ALDARRIKATU DUTE

TOLOSALDEA Ezker Abertzaleak «eskualdeko 17 gudariaren senide eta lagunak» elkartu zituen Tolosan, Gudari Egunaren kariatara; ondoren Berdura plazan elkartu ziren herritarrekin 7

Tolosa & Co merkatari elkartek poltsa berrerabilgarriak banatuko ditu

TOLOSA Erosleek elkartean aurkitzen diren dendetan jasoko dituzte 2



Poltsa berrerabilgarria. I. TERRADILLOS

Poltsa berrerabilgarriekin erosketak egitera bultzatuko dituzte herritarrak

Gizartea » Gaurtik hasiko dira banatzen merkatarik elkarteko dendetan; larunbat arratsaldeetarako ekintzak antolatuta dituzte.



Itzaropena Elordi eta Agustin Aduriz Tolosa & Co elkarteko kidea eta dinamizatzailea, atzoko aurkezpenean. I.T.

INIGO TERRADILLOS

Plastikozko poltsak ekidin eta horrela ingurugiroa gutxiago kalteztu aldera, Tolosa & Co merkatarik elkartek poltsa berrerabilgarriekin erosketak egitera animatuko ditu bezeroak. Hain zuzen ere, gaurtik aurrera elkartean barruan dauden 200 saltokietan hasiko dira banatzen orlegi koloredun poltsa berriak.

Hala, behin komertzioek poltsak dituztenean beraiek izango dute bezeroen artean banatzearen ardura. Igarondo eta Alde Zaharra merkatarik elkartek Tolosa & Co elkarte bakarrean batu zirenetik egin duten lehen ekimena da hau. Itzaropena Elordi elkarteko kidea «baitor» azaldu da, eta erosten artean harrera ona izango

duela eta jendeak poltsak erabiliko dituela uste du.

Dinamizazio ekintzak aurten ere

Bestalde, udazkeneko kanpainaren barruan, pasa den urtean hasi ziren dinamizazio ekintzei jarrai-

pena ematea aurreikusten dute. «Larunbat goizetan giro polita izaten da herrian eta jende asko irtezen da kalera erosketak-eta egitera, baina arratsaldeetan ez da horrela izaten, eta hutsunea nabari da», diote Tolosa & Co elkartetik. Hutsune hori betetzera datoz Eusko

Jaurilaritzako Finantza Sailetik lagunduriko ekintzak.

Hain zuzen, gazteteoiei zuzenduriko bost emanaldi izango dira ikusgai abendura bitarteko larunbat arratsaldeetan, Zerkausian. «Ikuskizun hauekin haurrak eta gurasoak herrian bertan geratzea

» EMANALDIAK

Urriak 2

■ **Antzerkia.** Kortxea doktoarearen abenturak eta musika tresnen fabrika antzezlanak, 18:00etan, Zerkausian.

Urriak 23

■ **Magia.** Tor eta Eriz magoen ikuskizuna. Bi emanaldi: lehena 17:30etan eta bigarrena 19:00etan. Zerkausian.

Azaroak 13

■ **Pailazoak.** Tatxin eta Tatxin pailazoen emanaldia, 18:00etan, Zerkausian.

Azaroak 27

■ **Antzerkia.** Zirika Zirkus taldeak Zorianak Zuri izeneko ikuskizuna eskainiko du, Zerkausian, 18:00etan hasita.

Abenduak 11

■ **Kontzertua.** Xurdinen Gabonetako Kontzertua eta Disko Top, 18:00etan hasita, Zerkausian.

lortu nahi dugu, eta kanpotik ere gurerajendea etortzea; nolabait larunbat arratsaldeetan herriari bizia eman nahi diogu», azaltzen du Agustin Aduriz merkatarik elkarteko dinamizatzaileak.

Oinezkoentzat leku handiagoa Trianguloan

Azpiegiturak

» Zumalakarregi, Rondilla, San Frantzisko eta Soldadu kaleen arteko elkargunea berdintzen ari dira.

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Iraunkorraren Planarekin oinezkoen protagonista bihurtzen duten gune berriak sustatu nahi ditu Udalak, eta helburu horrekin ari direla lanean Zumalakarregi kalean azaldu dute. Bertako erreforma lanen azken fase gisa, aste honetan hasi dira Zumalakarregi, Rondilla, San Frantzisko eta Soldadu kaleen arteko elkargunea berdintzeko lanak. Modu horretan, oinezkoentzako espazioa zabalduko dute gune horretan, espazioak kenduz.

Gainera, gune osoa maila berean jartzeaz gain, Rondilla kalean zirkulaziorako bide bat utziko dute, Triangulo plazaren tamaina handituz. Tolosa Zona 30 Plana apli-

karregi kalean azaldu dute. Bertako erreforma lanen azken fase gisa, aste honetan hasi dira Zumalakarregi, Rondilla, San Frantzisko eta Soldadu kaleen arteko elkargunea berdintzeko lanak. Modu horretan, oinezkoentzako espazioa zabalduko dute gune horretan, espazioak kenduz.

Gainera, gune osoa maila berean jartzeaz gain, Rondilla kalean zirkulaziorako bide bat utziko dute, Triangulo plazaren tamaina handituz. Tolosa Zona 30 Plana apli-



Urriaren 15erako lanak bukatuta egotea espero dute. I.T.

katzeko asmoa dute bertan, eta ondorioz, zirkulaziorako gehienezko abiadura orduko 30 kilometro izango da. Abiadura mugatzearekin batera, semaforoak kenduko dituzte eta oinezkoen lehentasuna gehiago errespetatzen duten zirkulazio seinala berriak jarriko dituzte.

Ekintza horien bitartez, San Frantziskoko bidegorriari jarraitzen ematea ere lortuko dute, Alde Zaharreko bidegorriarekin bat egin arte. Erreforma honetarako beharrezkoak diren obrak bi aste barri, urriaren 15erako, amaituak egotea espero dute. Beraz, «laster herriko oinezkoek eta bizikletazaleek zabal, garbiagoa, jasangarriagoa eta segurua izango den gune berriaz gozatu ahalko dute», adierazi dute Udaletik.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baseri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

EROSTEKO

■ **Akordeioa.** 8-10 urteko umearentzako akordeoi kromatikoa murritu bat erosi nahi dut. Interesa-

tuek deitu 665 73 33 56 telefono zenbakira.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Lekunberriko jate-txe batek asteburuetan eta jai-egunetan lan egiteko esperientziadun zerbitzaria behar du. Interesatuak deitu 659 0152 47 telefono zenbakira.

Toberna - Jateketa
Zaharren Billokia
 Aste osoan eguneko menua
 Zure aurkuntza egokitzen gara
 Menu berazik
 Tel.: 943 69 26 32 • Mikal Deuna Plaza, 8 • BILBAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA
www.tolosaldeko hitza.info

@Gizarte sareak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA gizarte sareetan ere jarrai dezakezu. Facebooken, esaterako, 1.414 lagun ditu eskualdeko egunkariak, eta guztiak jasotzen dituzte eskualdeko berriak unean unean. Twitter sarean ere aurki dezakezu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Egin zaituzte eskualdeko egunkariaren lagun eta jasotzaizazu azken orduko albisteak seguituan. Argazki eta bideo berriak ere ikusteko aukera baduzu gizarte sareen bidez:
www.tolosaldeko hitza.info

4.800 euro inguruko parking plazak atera ditu lehiaketara Udalak

Tolosa » Voith Gorostidi eremuan aurkitzen dira eta kontzesioan emango ditu, 20 urtez. Izena emateko epea laster zabalduko dute.

ASIER IMAZ

Atzo burutu zen Ohiko Bilkuran onarturiko puntu bat aurkeztu zuten udal ordezkariak ondoren: «Tolosako Udalak 105 parking plaza berri aterako ditu konkursoan Voith-Gorostidin».

Uda aurretik iragarri bezala, Udalak Artxipiaga Plazan kokatuko diren 105 parking plaza esleitu-ko ditu datozen egunetan, horietatik lau mugikortasun murriztu duten pertsonentzat izango dira. Parking plazak kontzesioan emango dira, 20 urtez. Izen ematea urriaren hasieran hasiko dela ere azaldu zuten.

Interesa dutenek Udaleko bulegoetara jo beharko dute, NAN, gidabaimena, ibilgailuaren zirkulazio-baimena, errolda agiria eta enpresa ziurtagiriarekin batera.

Zozketa azaroaren amaieran egingo da eta parking bakoitzak 4.800 euroko prezioa du, zergak kontuan hartu gabe.

Onuradunak erabakitzerako unean, aurrez salgai jarri ziren 93 plaza tasatuetan jarri zituzten baldintza berdinak hartuko dituzte kontuan.

Parking plaza gehiago

Voith Gorostidi eremuan 1220 aparkaleku egingo dira, 773 babes-tuak eta 447 libreak. 210 plaza uda-

letxarenak dira eta Artxipiaga Plazari 105 dagozkie. Beste 105ak Arrillaga Plazan egingo dituzte.

Hauen ondoren, Berazubi eta Izaskun auzoan egin nahi ditu Udalak aparkaleku gehiago. Hauek ordea beste modu batekoak izango dira. Hala eta guztiz ere, akordioak garatu gabe aurkitzen dira oraindik. Epe luzera beste hainbat proiektu aztertzen ari direla ere azaldu zuten Udaletik, adibideen artean Euskal Herria plaza aipatu zuten.

» 105 PARKING PLAZA

Onuradunak

■ Arramele auzoko bizilagunak.

Tasatua, kontzesioa edo pribatua den beste garaje plazarik ez badute, etxebizitza bakoitzak plaza bat lortu ahaliko du.

■ Alde Zaharreko bizilagunak.

Arramele auzoko baldintza berdina betetzeko, etxebizitza bakoitzak plaza bat.

■ Tolosako bizilagunak.

Aurrekoen baldintza berberak.

■ Arramele auzoko bizilagunak.

Lehendik gehienez parking plaza bat dutenak.

■ Alde Zaharreko bizilagunak.

4. aurkitzen diren baldintza berberak.

■ Tolosako bizilagunak.

4. eta 5. goen baldintza berberak.

■ Tolosaldeko herritarrak.

Aurrez plazarik ez baldin badute eta auto baten jabe baldin badira.

■ Tolosako langileak.

Azken bost urteen barruan, 3 urtetan Tolosan lan egin dutela erakusten dutenak.

Manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte eskualdean

Politika » Oinarritzko eskubideen aldeko aldarria zabalduko dute urriaren 2an Bilbon. Bertara joateko zerrendak jarri dituzte.

ERREDAKZIOA

Herritar talde batek manifestaziorako deialdia luzatu zuen irailaren 20an. Martxa larunbat honetan burutuko da Bilboko kaleetan, hau da, urriaren 2an. *Debeku gehiagorik ez!* Giza eskubideak, eskubide zibil eta politikoak pertsona guztientzat lelopean milaka euskal herritar biltzea espero dute.

Eskualdetik autobusez

Tolosan Raku eta Denak tabernetan jarri dituzte zerrendak. Autobus berriz 15:00etan irtengo dalarunbatean Santa Frantziskotik.

Anoetan Itzuli tabernan jarri dute autobusez joan ahal izateko zerrenda.

Ibarratik ere autobusa ateratzea erabaki dute eta ohiko lekuetan eman ahaliko da izena.

Amezketatik 15:00etan irtengo da autobusa. 15:15ean Alegian egingo du geldialdia. Inguruko herritar guztiak ohiko guneetan izango dute izena emateko aukera. Villabonatik ere autobusa antolatu dutela azaldu dute.

Aho batez onartu dituzte gai zerrendako puntu guztiak

Tolosa » Besteak beste, Amarotz paper fabrika azpi esparruko Plan Bereziaren Testu Bateratua onestea erabaki dute.

A. IMAZ

Ezohiko orduan egin zuten atzo Ohiko Osoko Bilkura Tolosako udaletxean. EAJ, EA, Hamaika Bat, PSE eta PPrende ordezkariak 08:00etan elkarrekin ziren bilkura aretoan. 12 puntu aztertu eta bozkatu zituzten udal ordezkariak. Ezker Batua-Aralar taldeko zinegotzirik ez zen agertu atzokoan.

Erabateko adostasuna

Aurrez eginiko batzordeetan dena loturik utzi zutelako edo alderdi desberdinen arteko adostasuna erabatekoa delako, Osoko Bilkura azkarra izan zen. Bozka guztiak baiezkotzat izan ziren eta ondorioz, gai zerrendako puntu guztiak onarturik gelditu ziren. Bilkura



08:00etan hasi zen atzo Osoko Ohiko Bilkura. A. IMAZ

euskara hutsean burutu zen, hori bai, batzordeetan egon ez den herritarrak nekez jarraitu dezake hitz teknikoak beteriko antzeko Bilkura. Onartu ziren puntuaren artean hauek aurkitzen dira: «Zerga informazioa uzteko Gipuzkoako Foru Diputazioarekin lankidetzat hartzea»; «Dirulaguntzen Ordenantzen hasierako onspena»; «2011 Amarotz pa-

per fabrika azpi esparruko Plan Bereziaren Testu Bateratua onestea»; «14 Berazubi-Kondeaneko Aldapa (bikoitiak) azpiesparruko Plan Bereziaren Testu Bateratua behin betiko onspena» eta «Artxipiaga plazako (Voith-Gorostidiko 4. partzela) aparkalekuen herri jabariaren gaineko emakidarako baldintza agiriaren onspena».

Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso

ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berrizpekin ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argiakia handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:

samsung LE 32C450

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, 1000 Hz D-Link+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragine bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztien lotzeko.

Urriaren 15ean,

telebista hau zotz egingo dugu

BERRIAren harpidedunen artean, Elektra eskutik.

elektra

www.elektragaliak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info aukerazazu**.bizieuskaraz.berria**

URAK BETETAKOA



Demetrio Garmendia eta Aitziber Artega, Ibiurten bizi izan zirenetako bi bizilagun, eskulturaren aurrean. HITZA

» BERTSOAK

Arkaitz Artega Ibiurko bizilagunak sortu eta omenaldian abestu zituen bertsoak:

Errota eta Gure Ametsa
Erbeta goi eta behokoa
hoi zen Biallarrango auzoa
Ibiur izenekoa
basoak, soro eta belaze
ederre osatutakoa
urteetan gure aiton-amonak
bukun zainduta
baina etorri zen behin albiste bat
ta eta oso gustukoa
garaia iritsi omen zela
gure etxea utzeko
eta nahiz eta joan ginetarik
pasa den urte mondia
ez dugu sekulan ahabatuko
bertan bizitakoa

Harririk zuhaitz horrek badauka
indarra eta kementa
horrek urak lana egin dula
dago gaur nabarmena
gotikan bera errekatuak
gero ibaian barrera
etxeak ere alkaren ondoan
austean dila harena
Ibiurren zegoen bezalaxe
ere bertan dago dena
Heren dago agaldak bat Ibiur
ondo azalzen duena
ezautu ez dunak, jakiteko
hau da erarik onena
harririk beidatu ta kus daiteke
ur azpian zegoena

Azikorako bertsoa ordea
kantatu nahi diet alege
Ibiurren guk bizitakoak
gauza polit asko daude
Demetrioren karta jekian
ordaiak pasatuta gaude
gibel urdin, xixa ta ontoko
bilzen fin, goi eta be
tuokoa ta kolorka, ontzi alka
amonen sukalden jabe
aste bete ez du pasatuzten
hazien gogatu gabe
Ibiur etekin joateak
gauz on bat badu halare
bestela ez baigendun egingo
hamaitakoa debalde

«Familia handi bat bezala ginen.
Aitona bezala izan da guretzako
Demetrio». Uda pasatzera ere
etortzen ziren Demetrioren arre-
ta, haren seme-alabak eta beraien
haurrak. Madriletik etortzen ziren
eta haurrekin jolasten ibiltzen zi-
ren bailarako beste haurrak.

Inurtek karramarro bila
Garmendiak erreperidirik gabeko
Ibiur ezagutu zuen. «Egur asko za-
goen. Lehen erreperidirik gabe,
iliekirin ateratzen zen egurrak».
Erepekiea egitera joan zirenean
gildetu zuten parajearen izena
zein zen eta Ibiur zela erantzun
ziren Garmendiak. «Zentzua ba-
zuela esan zuten, bi erreka bai-
tozuelen. Harezerko hain garru-
tsak hartu zuen Ibiur izena.

Ezaguna zen lekua, amuarrain-
ak eta hutes ere karramarroak
harrapatzeko. Inurtek jotzen zi-
ren karramarro bila. «Erepekiea
egin zenean, Tolosatik bizikletan
eta lekuan aho jotzen ziren», go-
goratzen du Garmendiak. «Or-
duan oportetan ez zen karporea jo-
aten gaur egun bezala». Jende
asko jotzen zen orokara. Garmen-
diak gogon du astebeite pasatza

joandako familia ere, kanpin den-
dia eta gauri. «Ene eske niregana
etortzen zireni, dio.
Ibiurren urtegi egingo zeneren
zurumurras zabildu eta egin arte
denbora gogor zen. Hasiara botan,
Udalarekin ezei dastu gabe hasi
ziren zenbait lan egiten. Herrian
karekial ere jarri zituzten akordioa
barhar zela eskatuz. «Herriaren-
tzako kalte handia zela esaten zi-
tzion Diputazioari», gopratzen
du Garmendiak, «baina Diputa-
zioak laguntza handia emateko as-
monek ez zuen».

Azkenean, obrak egiten direne-
an udalari ematen zaien aurreko-
nuaren %3a erabiliz bideratu zen
baserri eta lurren desjabetza-
ren arta.

zuen arte. Aitziber Artega hamasei urte arte egon zen Biltzen Gure Ametsa etxean. Bailarako beste baserriak Erbeta Behokoa eta Errota ziren. 20 lagun inguru bizi zireen lau etxetan.

«Pena handia»
Legoretan bizi da egun Garmen-
dia. Bertako eskolara gogibatu
zuten behin uraren gaina joratzan
ari zirela. Ikasleek galdetu zituen
esa negar egin zuten baserria utzi
zuenen. «Pena handia hartu bai,
baina negarrik egin ez», erantzun
ziren.

Arteagak, aldiz, negar asko egin
duela dio. «Gaur egun bertara joan
eta oraindik ezin dot baeha eman.
Hamasei urterekin joan nintzen,
baina bitipen asko izan ditut ber-
tan. Leku oso berezia zen, agian gu-
tian jaino ginekola. Zerionsu ginen
bertan».

Denak elkar ezagutzen ziren.
«Aitziber hiru edo lau urte zituela
etortzen zen sukalden eta harras-
kan aritzen zen jolasen», gogora-
tzen du Demetrik. «Eskolako la-
nak egiteko eta zuhaitz eta lan-
darevi buruz ere galdetzen
zidaten». Eta Arteagak gaineratu

bat da, basoko zuhaitz zahar bat
bezala», azaltzen du eskultoreak.
«Urak bete duena inurte izan da».
Zuhaitzaren hutsune horretan
hainbat marka daude, bailaran
izan ziren lau baserriak irudika-
tzen dituztenak. Zuhaitza inausita
dago. «Metafora bat egiten da,
zuhaitz bat inausuten denean ez
baita bultzatzen, adarrak bertan
dago Biallarrango festetan in-
ausaturatuko obra. Tomas Ugarte-
mendia eskultoreak egin».

Herriaren arean erabakitako
artelana egin zuen Ugarte-
mendiak, mahai gainean hainbat ideia
jantzi diren. Zuhaitz bat irudika-
tzen du eskultoreak. «Zuhaitz huts

Biallarrin » Udalak Ibiurko bailarari eta bertan
bizi izan zirenei omenaldia egin die eskultura bat
jarri herriko plaza eraberrituzten sarreran.

MANOL GARCIA

Orain hama hiru urte utzi behar
izan zuten Ibiurko hainbat bertako
bizilagunak. Izen berria duen gaur
egungo urtegi egin behar zuten
bertan. Orain ur azpian dagoen
hainbat hiriti eta bertan bizi izan zire-
nei omenaldia egin die herriak
eskultura baten bitartez. Elkaren
atzian, plaza eraberrituzten sarre-
ran dago Biallarrango festetan in-
ausaturatuko obra. Tomas Ugarte-
mendia eskultoreak egin».

Herriaren arean erabakitako
artelana egin zuen Ugarte-
mendiak, mahai gainean hainbat ideia
jantzi diren. Zuhaitz bat irudika-
tzen du eskultoreak. «Zuhaitz huts



Ibiurko bizilagunak eta euren familiakoak eskulturaren inaugurazioa egin zenean. HITZA



Demetrio Garmendiak kendu zion eskulturari estalkia. HITZA



Erbeta Behoko baserria zegoen parajea egun ur azpian dago. HITZA



Demetrio Garmendiaren Erbeta Behokoa baserria bazkari batekin agurtu zuten. HITZA

HILEKO TXOKOA TXOKOAREN HITZA

1 IKASTAROA
Groseko indarra surf eskolak
eskeinitako surf ikastaroa

2 LIBURUA
Pedro Mari Otañoren
liburuaren 15 ale

3 SARRERAK
Txindokiko Itzala parkerako
bi sarrera pare
www.txindokikoitzala.com
info@txindokikoitzala.com

4 ANTZERKIARI
Agerre Antzerki taldearen
DOLTZA lana ikusteko
bi sarrera
pare
Txirri, Mirri
eta Txirribon
Juniorrek eskainiko duten
Kaxxurri Miliputxi
antzezlerako bi sarrera pare

Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info
(parpildetuen kodea, izena, bertsi, eta zine)
eskaletzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz | Aste horretako antzerki, antzezleri eta otegunaren,
09:00etatik 17:00etara, bertakoak eta kanpoetako erregistratutako diruagaz.



Adi jarraitu zituzten azalpenak. Panel ezberdinak ikusi zituzten eta baita indusketa guneak ere. E. MAIZ

Historiaz gehiago jakiteko herriko haurrek Basagainera bisita egin dute

Anoeta » Mikel Eskuderok eman zizkien azalpenak. Urtero bezala, arkeologoak, hamabost egunez lanean ariko dira.



Atzo ere, arkeologoak lanean ari ziren Basagainen. E. MAIZ

ERREDAKZIOA

Ikasturte hasiera guztietan bezala, Ikastolako haurrak, atzo Basagainera egin zuten bisita. Aurten, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako ikasleak izan dira. Mikel Eskuderok, Basagaingo Burdin Aroko herrixkaren inguruko informazioa eman zien eta bertako historiaz gehiago ikasi ahal izan zuten.

Arkeologoek eta boluntarioek, Anoetako Basagainen, lanean jarraitzen dute. Urte asko daramatzate lan hauetan eta 13-15 lagun dabilta. Urtero-urtero, hamabostaldi bat egiten dute bertako aztar-

nak bilatu nahian. Aurten, herriko terrazan aritu dira indusketak egiten: apaingarriak, etxeak eraikitze materiala, burdina, iltzeak, erein eta jateko erabiltzen zituzten ikatzutako haziak... aurkitu dituzte.

Indusketa hauek egin ahalizateko, Foru Aldundiak eta Anoetako Udalak laguntza ematen dute. Xabier Peñalberren gidaritzapean, arkeologoak eta arkeologiako ikasleak aritzen dira. Bihar bukatuko dituzte aurtengo lanak.

Uso postu guztiek badute bere ehiztaria

Areso » Larunbatean izan zen ehiza postuak eskuratzeko azken aukera. Azaroa amaiera bitarte erabiltzeko aukera dute.

ERREDAKZIOA

Larunbatean izan zen Aresoko Uso Postuen bigarren enkantea. Eta bigarren enkantearekin, aurtengo uso denboraldirako, postu guztiak banatuta geratu dira.

Guztira, 26 postu zozketatu dituzte. Eta guztien artean, 10.512 euro jaso dituzte. Gutxiena ordaindutako postuak 90 eurokoak izan dira eta hortik aurrera, 130 euro, 250 euro, 330 euro, 543 euro,

815 euro edota mila euroti gorakak ere izan dira: 1.248 euro edota 1.713 euro ordaindu duenik ere izan da. Krisiak ere izan du eragina ehiztarien artean, iaz, posturik merkeena 97 eurokoa izan zen eta garestiena 3.168 eurotako. Iaz, 19.000 euro pasatxo atera zituzten.

Egun gutxi barru, aste eta aste-buru, ehitariz beteko dira Areso inguruko mendiak. Eguraldiak laguntzea eta hego haizeak, usoak ekartzea baino ez dute desioko ehiztariak. Eta behin usoak izanda, apunteria ona ere beharko dute. Nahiz eta usorik ez erori eta esku hutsik bueltatu etxera, ehiztarien arteko hamaiketako ederrak ziur ez direla faltako.



Lehen aldiz herrian Kantu Jiran

ALEGIA » Alegiako Txintxarri abesbatzak antolatuta Kantu jira egin zen igandean San Juan kalean barrena. Azoka egin zen herrian eta jende asko ibili zen. Jende hori gero kantu jirara bildu zen. Giro ederrean, herritarrak umoretsu aritu ziren kantari abesbatzako kideekin batera: *Triste bizi naiz eta, Txantxibirin, Lepoan hartu ta segi aurrera, Begiak parrez parre, Xalbadorren eriotzean, Maiteak galde egin zautan, Agur Zuberora...* Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen iritziz, «oso baikorra» izan da abesbatzak lehen aldiz antolatu duen kantu jira eta «ez du bazterten» aurrerantzean ere horrelakorik egitea. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Gudari Egunean ekitaldi berezia burutu du Ezker Abertzaleak

Tolosaldea » Eskualdeko «17 gudariren» senide eta lagunak elkartu ditu oraina ulertzeko hauen lekukotza «beharrezkoa» delako.

ASIER IMAZ

Jon Paredes, Txiki, etakidea Guardia Zibilaren boluntario talde batek fusilatu zuen, Eusko Gudariak kantatzen zuten bitartean. La Modelo kartzelatik atera eta, Herrialde Katalanetako Cerdanyola herriko hilerri inguruetan erail zuten, bere anaia eta abokatua presentzeudela.

Angel Otaegi, Burgosko kartzelako paretaren aurka fusilatu zuen Guardia Zibilaren beste boluntario talde batek, lekukorik gabe.

Franco bezala ezaguna zen Espainiako estatuburu jeneral faszistaren aginduz exekutatu zituzten bi euskal herritar hauek; 1975eko irailaren 27ko goizeko zortziak ziren.

ETAko bi kide hauekin batera, FRAPeko beste hiru kide fusilatu zituzten egun berean: Ramon Garcia Sanz, Jose Luis Sanchez Bravo eta Humberto Baena. Guztiei epaiketa sumarisimoak egin zizkieten, epaimahai militarretan; euren abokatu defendatzaileek heriotz-zigorren aurkako defentsa prestatzeko lau ordu besterik ez zituzten izan. Euskal Herriko txoko guztietan ez ezik, Europako herrialde gehienetan erabaki haien

aurkako jarrera agertu eta eskakizunak egin zituzten mota guztietako eragileek. Baina Francoren erregimenak bereari eutsi zion exekuzioak burutuz, «jokabide eredugarri modura».

Euskal Herrian, orduz geroztik, irailaren 27an Gudari Eguna ospatzen da, «Euskal Herriaren eskubideen eta askatasunaren alde bizi galdu duten eusko gudariak» gogoan hartu eta omentzeko.

«Dena eman dute»

Tolosaldeko Ezker Abertzaleak ekitaldi berezia burutu zuen Tolosan; «Eskualdeko 17 eusko gudariaren senide eta lagunak» elkartu zituen 2010eko irailaren 27an, herenegun. Ezker Abertzalearen esanetan, «Gudari Eguna herri honen askatasunaren alde dena eman duten gure senide eta burkideen borroka goraiatzeko eguna da. Gudariaren eguna. Atzokoak, gaurkoak eta betikoak».

Eskualdean 17 aipatu zituen Ezker Abertzaleak, «hotzikara eragiten duen datua». Hauen artean aurkitzen da aurten bertan Korsikan zendu den Mikel Zalakain. Ekitaldian hitz bereziak izan zituzten berarentzat.

Ezker Abertzalearen ustez, liburu ofizialetan «ahazturik» baldin badaude ere, «gure historiaren orri asko idatzi dituzte gudariak». «Faltsutze etengabe» horren atzean espainiar eta frantziar estatuak aurkitzen direla azpimarratu zuten: «Hauen eraso ideologikoak



Gudari Egunean baitan ekitaldi berezia burutu zuen Ezker Abertzaleak. A. IMAZ

eragina izan du gure ikuspegian. Izan ere, hedabideek, hezkuntza kurrikuluma, erakundeen diskursuak eta doktrina antiterroristak hamarkadak daramatzate guren eta egiten dugunaren gerezko bertsioa eskaintzen».

Honen aurrean, «azken 51 urte

hauetan bezala», Ezker Abertzaleak aldarri bakarra plazaratu zuen: «garena izaten utz gaitzate, euskaldunak eta libreak». Hori lortzeko euren ekarpena «zutik» mantentzen dutela gogorarazi zuten, «errepresio eta jazarpen ororen gainetik, Euskal Herriarentzat be-

netako demokrazia eta justizian oinarrituko den konponbidearen alde».

Oraina ulertzeko ezinbestekoa da Ezker Abertzalearentzat «azken 51 urteotan, guztion askatasunaren alde hoberena eman duten haien lekukotzak biltzea». Haien oinordekoak Gudari Egunean karietara bildu zituen, «oso beharrezkoa baita oraina ulertu nahi badugu, atzo hauek egin zuten jarduna gogoan izatea».

Ondoren, herritarren aurrean

Trianguloa plazatik manifestazioa egiteko asmoa baldin bazegoen ere, Ertzaintzaren presentzia ikusirik Berdura plazan elkartu ziren senide, lagun eta herritarrek. Ekitaldian irakurritako mezua zabaldu zuten bertan. Eusko gudariaren aldeko oihuekin amaitu zuten 2010eko Gudari Eguna.

Villabonan omenaldi

Gudariaren enparantzan herritarren omenaldi beroa jaso zuten Miguel eta Mikel Zalakain aita-semeek. Villabonatik azaldu duteenez, Ertzaintza 17:00ak aldera azaldu zen «armaz josita», eta Zalakain aita-semeen omenez jarritako pankarta kendu zuten.

» «TOLOSALDEKO 17 GUDARIAK»

- **Joxe Etxeberria, 'Beltza' (Amezketza)**. Lehergailua jartzen ari zela hil zen 1973. urtean. 22 urte zituen.
- **Jose Bernardo Bidaola, 'Txirritia' (Lizartza)**. Guardia Zibilak hil zuen 1976an.
- **Jokin Saizar (Irua)**. Lehergailu bat jartzen ari zela hil zen 1977an. 20 urte zituen.
- **Xebas Goikoetxea (Ibarra)**. Guardia Zibilak eraila, 1977. urtean.
- **Joxe Migel Etxeberria, 'Naparra' (Lizartza)**. Duela 30 urte desagertarazi zuten. 22 urte zituen.
- **Joxe Arregi (Zizurkil)**. Espainiako poliziaren torturez hil zen 1981ean. 30 urte zituen.
- **Josetxo Jauregi (Ibarra)**. Guardia Zibilak eraila, 1981ean.
- **Joxi Zabala (Tolosa)**. GALEk eraila, 1983an. 20 urte zituen.
- **Joxean Lasa (Tolosa)**. GALEk eraila, 1983an. 21 urte zituen.

- **Mikel Lopetegui (Tolosa)**. Herre-rra de la Manchako espetxean hil zen 1988an.
- **Miguel Zalakain (Villabona)**. Martuteneko espetxean zendu zen, 1990ean. 58 urte zituen.
- **Ina Zeberio (Lizartza)**. Ertzaintzak hil zuen 1998an.
- **Esteban Esteban Nieto (Tolosa)**. Espetxean minbizia garatu zitzaion. 1999an hil zen, espetxetik irten eta 5 hilabete eta 20 egunera.
- **Jose Luis Geresta, 'Ttotto' (Zizurkil)**. Tiro bat buruan zuela hilik agertu zen 1999an. 29 urte zituen.
- **Felix Sarriegi (Alegia)**. Iheslaria. Baionan hil zen 2001ean.
- **Arantxa Otamendi (Elduain)**. Iheslaria. 2004ean hil zen Baionan.
- **Mikel Zalakain (Villabona)**. Iheslaria. Korsikan hil da aurten. 49 urte zituen.

Eskuratu Gipuzkoako natur eremuetako mapen bilduma DOAN!

Jaso **urriaren 3an BERRI**arekin etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoiekin.

10 liburuxka:
4 parke natural:
Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar eta Pagoeta

3 biotopo:
Leizor, Iñurritza eta Flysch Deba-Zumaia

Parketxe sareak · Talaiabidea
Ibilbide irisgarriak: Larraitz eta Arantzazu

Bakoitzean hainbat ibilbide + guztia bilduko duen zorroa

www.gipuzkoamendimendi.net

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ

berria



20°
13°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Aldaba.** San Miguel eguna:
11:00etan meza nagusia;
12:00etan hamaiketako herritarrei zuzendua; 18:30ean karta txapelketa; 20:30ean afari herrikoia eta ondoren aurtengo jaien amaiera.

■ **Irura.** San Miguel eguna:
09:00etan diana txistulariekin;
11:00etan herriko zaindariaren omenezko meza nagusia; ondoren dantzariak eta herri-hamaiketako; 18:00etan Irurako dantza taldearen saioa; 19:00etan Miren Fernandez abeslariaren *Laztan-zen nauen esku* diskoaren aurkezpen kontzertua; 20:15ean Kupa trikixita taldearen emanaldia izango da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



● Toribio Gereñok argazki hauxe bidali digu XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Inpernu-ko bidean ateratako argazkia». TORIBIO GEREÑO

● Maddalen Iztuetak argazki honekin hartu du parte: «Natura eta lasaitasuna asko eskertzen da, oporretan, eta horrelako tokietan, gehiago». MADDALEN IZTUETA




A Agurrak



Zorionak!

Haizea Baraibar Goñi (Areso).

Ondo pasa zure bigarren urtebetetze egunean. Muxu handi bat Berrobiko aiton-amonen partetik.



● **BALIARRAIN**
Ikerrek eskualdean atetarako hauxe bidali digu: «Ibiurko presa. Ez dugu urrutira joan beharrik paraje zoragarriak ikusteko». IKER

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria



EAKO Auzo partetxe

Getariako Olandetxean bi pargau bat pasatu

3. Saria



Gorrotzeko eskemita

Parte-hartzaile orok HITZAko materiala

2. Saria

